c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako mankomunatuerei erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoa."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen **funtsezko beharkizun** edo izapidetak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

### **27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.**

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasanak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

### **Ahal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organoko eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitu duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.



3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

**32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena**

12. artikulua. Eragozpenak.

10. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatatu behar dira, eta espedienteen jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

11. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badio, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.

12. Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatua jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

- a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.
- b) Obligazioaren onarpenaren frogagiritan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.
- c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaionean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean.

Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedienteen akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientea onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastera. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.



FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIKOA BEZA BARNE
20/12/2021	B21/0058	IKER OSA IEVA	2020-21 EZINDUENTZAT DIRULAGUNTZA	536,81
20/12/2021	B21/0058	ANETTE CABALLEIRO	2020-21 EZINDUENTZAT DIRULAGUNTZA	438,65
20/12/2021	B21/0058	XUBAN ILLARRAMENDI	2020-21 EZINDUENTZAT DIRULAGUNTZA	24,54
27/12/2021	B21/0061	ZUMIAIKO TXIRRINDULARI ELKARTEA	2021 URTEKO DIRU LAGUNTZEN KITAPENA	6.337,64
27/12/2021	B21/0061	PULPO ESKUBALOI ELKARTEA	2021 URTEKO DIRU LAGUNTZEN KITAPENA	14.848,39
27/12/2021	B21/0061	ZUMIAIKO TELMO DEUN ARRAUN KIROL ELKARTEA	2021 URTEKO DIRU LAGUNTZEN KITAPENA	19.901,24
27/12/2021	B21/0061	ZUMIAIKO UROLA ITSAS ADAR PIRAGUISMO	2021 URTEKO DIRU LAGUNTZEN KITAPENA	12.151,23
27/12/2021	B21/0061	TAOSA IGERIKETA KLUBA	2021 URTEKO DIRU LAGUNTZEN KITAPENA	2.646,27
27/12/2021	B21/0061	KBI ZUMIAIKO XAKE KLUBA	2021 URTEKO DIRU LAGUNTZEN KITAPENA	875,43
27/12/2021	B21/0062	IRATI OSA IRURETA	KIROLARIENTZAT DIRULAGUNTZA	750,00
27/12/2021	B21/0062	GONZALEZ ETXABARRI LAZKANO, JANIRE	KIROLARIENTZAT DIRULAGUNTZA	750,00
27/12/2021	B21/0062	GONZALEZ ETXABARRI LAZKANO, ANNETTE	KIROLARIENTZAT DIRULAGUNTZA	375,00
27/12/2021	B21/0062	LUBAKI GURASO ELKARTEA	2020-2021 IKASTURTEKO ESKOLA KIROLA	10.504,40
27/12/2021	B21/0062	ZUMAIENA IKASTETXEA	2020-2021 IKASTURTEKO ESKOLA KIROLA	7.647,60

**77.787,20****ONDORIOAK:**

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, kiroldegiko zerbitzuaren kontratua. Kontratu honek lehentasuna eduki beharko luke kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Lehendakariak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

**B21/0066 KIROL PATRONATUKO LEHENDAKARIAREN EBAZPENA**

**AURREKARIAK**

2021eko abenduaren 28an kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (11/2021)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Dirulaguntzen legeak dioena betetzen ez duten laguntzak onartu direla.

Eta, honako laguntzen ordainketak izapidetzea eten du:

**h) Irizpideak betetzen ez dituzten diru laguntzak**

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
20/12/2021	B21/0058	IKER OSA IEVA	2020-21 EZINDUENTZAT DIRULAGUNTZA	536,81
20/12/2021	B21/0058	ANETTE CABALLEIRO	2020-21 EZINDUENTZAT DIRULAGUNTZA	438,65
20/12/2021	B21/0058	XUBAN ILLARRAMENDI	2020-21 EZINDUENTZAT DIRULAGUNTZA	24,54
27/12/2021	B21/0061	ZUMAIKO TXIRRINDULARI ELKARTEA	2021 URTEKO DIRU LAGUNTZEN KITAPENA	6.337,64
27/12/2021	B21/0061	PULPO ESKUBALOI ELKARTEA	2021 URTEKO DIRU LAGUNTZEN KITAPENA	14.848,39
27/12/2021	B21/0061	ZUMAIKO TELMO DEUN ARRAUN KIROL ELKARTEA	2021 URTEKO DIRU LAGUNTZEN KITAPENA	19.901,24
27/12/2021	B21/0061	ZUMAIKO UROLA ITSAS ADAR PIRAGUISMO	2021 URTEKO DIRU LAGUNTZEN KITAPENA	12.151,23
27/12/2021	B21/0061	TAOSA IGERIKETA KLUBA	2021 URTEKO DIRU LAGUNTZEN KITAPENA	2.646,27
27/12/2021	B21/0061	KBI ZUMAIKO XAKE KLUBA	2021 URTEKO DIRU LAGUNTZEN KITAPENA	875,43
27/12/2021	B21/0062	IRATI OSA IRURETA	KIROLARIENTZAT DIRULAGUNTZA	750,00
27/12/2021	B21/0062	GONZALEZ ETXABARRI LAZKANO, JANIRE	KIROLARIENTZAT DIRULAGUNTZA	750,00
27/12/2021	B21/0062	GONZALEZ ETXABARRI LAZKANO, ANNETTE	KIROLARIENTZAT DIRULAGUNTZA	375,00
27/12/2021	B21/0062	LUBAKI GURASO ELKARTEA	2020-2021 IKASTURTEKO ESKOLA KIROLA	10.504,40
27/12/2021	B21/0062	ZUMAIENA IKASTETXEA	2020-2021 IKASTURTEKO ESKOLA KIROLA	7.647,60

**77.787,20**

**ERABAKIA:**

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

LEHENDAKARIA

**3.2.- 2021EKO UDALAREN 27., 28., 29., 30., 31. Eta KIROL PATRONATUAREN 2., 3., eta 4., KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA**





Kreditu aldaketa guztien berri eman da geratzen da

### KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA

#### Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0300.481.338.00.01 2021	GABONETAKO DIRU-LAGUNTZA	2.000,00	2.000,00	0,00
1 0300.481.338.00.06 2021	AUZOAK DIRU-LAGUNTZAK	25.000,00	8.000,00	17.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>27.000,00</b>	<b>10.000,00</b>	<b>17.000,00</b>

#### Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0300.226.338.00.94 2021	GABONETAKO FESTAK	5.000,00	10.000,00	15.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>5.000,00</b>	<b>10.000,00</b>	<b>15.000,00</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaia,

Alkatea

### KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.643.134.00.01 2021	LARRETXOKO IGOGAILUA PROIEKTUA, ETA ZUZE	0,00	93.000,00	93.000,00



1 0100.227.165.00.99 2021	GABONETAKO ARGIAK	33.299,20	2.238,05	35.537,25
1 0600.227.162.10.99 2021	UDAL ERAIKINEN ZABOR BILKETA	10.800,00	900,00	11.700,00
1 1000.227.334.00.99 2021	KONBENTUKO PROIEKTUAREN AURKEZPENA	0,00	5.203,00	5.203,00
1 0100.629.342.00.01 2021	FREGADORA	0,00	4.255,27	4.255,27
<b>GUZTIRA</b>		44.099,20	105.596,32	149.695,52

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2020	DIRUZAINZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	105.596,32
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>105.596,32</b>

**KODEEN AZALPENA**

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaia,

Alkateordea  
(Delegazioa 1084/2021 Alkate Dekretuz)

**KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA****Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 1200.481.337.20.01 2021	GAZTERIARI BURUZKO DIRU-LAGUNTZAK	5.000,00	5.000,00	0,00



<b>GUZTIRA</b>	<b>5.000,00</b>	<b>5.000,00</b>	<b>0,00</b>
----------------	-----------------	-----------------	-------------

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 1200.227.231.60.99 2021	PARTE-HARTZEA	18.016,90	5.000,00	23.016,90
	<b>GUZTIRA</b>	<b>18.016,90</b>	<b>5.000,00</b>	<b>23.016,90</b>

Zumaia,

Alkateordea

(Delegazioa 1084/2021 Alkate Dekretuz)

**KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA****Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0100.227.132.01.01 2021 (25 loteslea)	BULEGOEN GARBIKETA, UDALTZAINGOA	8.035,00	142.000,00	-133.965,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>8.035,00</b>	<b>142.000,00</b>	<b>-133.965,00</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0800.120.153.41.00 2021	OINARRIZKO ORDAINKETAK, BRIGADA	95.207,71	65.000,00	160.207,71
1 0800.130.172.01.01 2021	LABORAL FINKOAK- Algorri	0,00	17.000,00	17.000,00
1 0800.120.326.10.00 2021	OINARRIZKO ORDAINKETAK, LUDOTEKA	40.224,57	35.000,00	75.224,57
1 0800.160.326.20.01 2021	GIZARTE SEGURANTZA UDALEKU IREKIAK	24.189,45	25.000,00	49.189,45



	<b>GUZTIRA</b>	<b>159.621,73</b>	<b>142.000,00</b>	<b>301.621,73</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaia,

Alkatea

### KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA

#### Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 1000.500.929.00.01 2021	KREDITU GLOBALA	104.089,47	72.150,00	31.939,47
	<b>GUZTIRA</b>	<b>104.089,47</b>	<b>72.150,00</b>	<b>31.939,47</b>

#### Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0200.201.342.00.01 2021	ZUMAIENAREKIN HITZARMENA	28.500,00	2.000,00	30.500,00
1 0100.643.151.00.01 2021	HIRIGINTZAKO AZTERLANAK	128.310,00	35.200,00	163.510,00
1 1200.227.231.60.99 2021	PARTE-HARTZEA	23.016,90	5.100,00	28.116,90
1 0100.210.165.00.01 2021	ARGITERIAREN MANTENIMENDUA	18.000,00	2.000,00	20.000,00
1 0100.221.153.41.11 2021	TRESNAK ETA ERREMINTAK	14.000,00	2.000,00	16.000,00
1 0100.227.164.00.99 2021	HILERRIKO KONTRATUA	44.000,00	1.000,00	45.000,00
1 0100.210.166.00.01 2021	AZPIEGITURAREN MANTENIMENDUA-SANEAMENDUA	3.000,00	300,00	3.300,00
1 1000.226.920.00.99 2021	BESTE HAINBAT GASTU	4.000,00	2.000,00	6.000,00
1 0900.222.920.01.01 2021	TELEFONOAK BULEGO OROKORRAK	6.000,00	3.000,00	9.000,00



1 0100.601.454.00.02 2021	LURJAUSIA JUAN BELMONTE 39	0,00	16.700,00	16.700,00
1 1000.226.334.00.98 2021	SAN PEDRO ELIZAKO GASTUAK	0,00	2.850,00	2.850,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>268.826,90</b>	<b>72.150,00</b>	<b>340.976,90</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaia,

Alkatea

### ERANSKINA

#### 2021eko aurrekontuan kredituak gaitzeko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
1 0000.623.342.00.02 2021	KANTAUURIKO GARAJEETAKO LANAK	8.315,12
1 0000.643.342.01.01 2021	PADEL PISTAREN ITXIERA PROIEKTUA	5.000,00
1 0000.622.342.05.02 2021	AITZURI FRONTOIKO ESKAILERAK	2.826,72
<b>GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA</b>		<b>16.141,84</b>

#### 2021eko aurrekontuko kreditu gaikuntzaren finantzaketa

Kod.	Sarrerren partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.730.342.00.01 2021	UDALAREN EKARPENA INBERTSIOAK	16.141,84
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>16.141,84</b>

### KODEEN AZALPENA

- a) Pertsona natural edo juridikoen ekarpenak edo ekarpen konpromisoak
- b) Ondare ondasunen besterentzeak
- c) Zerbitzuak ematea
- d) Maileguen itzulketa
- e) Bestelako ekarpenak
- f) Itxitako ekitaldietako ordainketen itzulketak
- g) Tributu izaerako sarrera handiagoak (soilik kreditu zabalgarrietarako edota kreditu globalerako)

**KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA****Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0000.226.342.01.99 2021	BESTE HAINBAT GASTU	2.800,00	900,00	1.900,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.800,00</b>	<b>900,00</b>	<b>1.900,00</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0000.222.340.00.01 2021	TELEFONOA	1.000,00	500,00	1.500,00
1 0000.369.342.01.02 2021	KONTU KORRONTEEN KOMISIOAK	0,00	400,00	400,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.000,00</b>	<b>900,00</b>	<b>1.900,00</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

ZUMAIA,

Alkatea

**KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA****Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0000.212.342.01.01 2021	MAKINERIA, INSTALAZIOAK ETA TRESNERIA	13.000,00	2.238,50	10.761,50
	<b>GUZTIRA</b>	<b>13.000,00</b>	<b>2.238,50</b>	<b>10.761,50</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako	Gehikuntza	Amaierako
-------------	-------	-----------	------------	-----------



		kreditua		kreditua
1 0000.643.342.01.02 2021	KIROLDEGIKO EMERGENTZIA HORNIDURAREN PRO	0,00	1.452,00	1.452,00
1 0000.643.342.05.01 2021	FRONTOIKO AUTOKONTROL PLANA	0,00	786,50	786,50
	<b>GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>2.238,50</b>	<b>2.238,50</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

ZUMAIA,

Alkatea

### **3.- LURRALDE ANTOLAMENDUA (Hirigintza, Ingurumena, Zerbitzuak eta Auzoak).-**

#### **3.1.- IRIZPENAK:**

**3.1.1.- ZUMAIKO UDALAK UROLA PLAZAN DUEN AUTOKARABANENTZAKO ZERBITZUGUNAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN BEHIN BETIKO ONARPENA, BIDEZKO BADA**

**“ 2022KO URTARRILAREN 17KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO UDALAK UROLA PLAZAN DUEN AUTOKARABANENTZAKO ZERBITZUGU-NEAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN BEHIN-BETIKO ONARPENA**

#### **AURREKARIAK**

**1.-** Zumaia Udalak udalerrian turismo arduratsua sustatu nahi du, eta horretarako, autokarabanentzako zerbitzugune bat erreserbatu du Urola plazan.

**2.-** Aurrekoa kontuan hartuta, udal gobernu taldeak gune horretarako araudia sortzeko lan egin du. Ildo horretan, 2021eko ekainaren 23an herritarrek ekarpenak egiteko epea zabaldu zuen Zumaia Udalak.

**3.** Ordenantzan gune horren hainbat aspektu arautzen dira: gehieneko egonaldia, partzelen barruko erabilera edo eskaintzen diren zerbitzuak, esate baterako.

**4.-** 2021-05-17ko eta 2021-07-05eko Lurralde Antolamenduko Batzordeetan ZUMAIKO UDALAK UROLA PLAZAN DUEN AUTOKARABANENTZAKO ZERBITZUGUNEAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO irizpena idazteko irizpideen berri eman da.

**5.-** Udalbatzak, 2021eko uztailaren 29ko ohiko bilkuran, hasierako onarpena eman zion «Zumaia udalak Urola enparantza plazan duen autokarabanentzako zerbitzugunearen erabilera arautzen duen ordenantzari.





**Zumaia Udala**

2022IAKU0001-A22/0507

**6.-** Agerraldi publikoan alegazio bakarra aurkeztu da, Jesus Basterretxea (NAN 16044132E) " Club Vasco de Usuarios de Autocaravanas SORBELTZ"-en izenean.

**7.-** Alegazioa juridikoki aztertu eta onartzea proposatu da eta horrela informatu da 2021eko azaroaren 15eko Lurralde Antolamenduko Batzordean.

### IRIZPENA

Ondorioz, 2022eko urtarrilaren 17ko Lurralde Antolamenduko Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (EHBildu)  
Marina Bidasoro (EHBildu)  
Alex Oliden Antia (EHBildu)  
Ainhoa Illarramendi (EAJ)  
Arritxu Marañon (PSE)

Aurka: 0  
Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

**LEHENA.-** Jesus Basterretxea (NAN 16044132E) "Club Vasco de Usuarios de Autocaravanas SORBELTZ"-en izenean aurkeztutako alegazioa onartzea.

**BIGARRENA.-** ZUMAIAKO UDALAK UROLA PLAZAN DUEN AUTOKARABANENTZAKO ZERBITZUGUNEAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN behin betiko onespina ematea.

**HIRUGARRENA:** Ordenantzaren behin betiko onarpenaren iragarkia eta testu osoa GAOn argitaratzea.

Gaia azaldu ondoren bozketa egiten da

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA:** **LEHENA.-** Jesus Basterretxea (NAN 16044132E) "Club Vasco de Usuarios de Autocaravanas SORBELTZ"-en izenean aurkeztutako alegazioa onartzen da.



**Zumaiako Udala**

2022IAKU0001-A22/0507

**BIGARRENA.-** ZUMAIAKO UDALAK UROLA PLAZAN DUEN AUTOKARABANENTZAKO ZERBITZUGUNEAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN behin betiko onespena ematen da.

**HIRUGARRENA:** Ordenantzaren behin betiko onarpenaren iragarkia eta testu osoa GAOn argitaratzea.

**3.1.2.- ZUMAIAKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZAREN HIRUGARREN ALDAKETARI HASIERAKO ONARPENA, BIDEZKO BADA**

**“2022KO URTARRILAREN 17KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZAREN HIRUGARREN ALDAKETARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO IRIZPENA.**

**AURREKARIAK**

**1.-** 2017ko Udaldian jarri zen indarrean ZUMAIAKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA, urte horretan ez zen Herri-gune osoan ezarri. 2018. Urtean eta prozesu parte-hartzaile bat garatu eta gero mahai tekniko politiko bat osatu zen ordenantzaren lehen aldaketa idazteko. Prozesu guzti hauen ondoren Zumaiako Udaleko osoko bileraren 2018ko maiatzaren 17ko ezohiko bilkuran ordenantzaren lehen aldaketa onartu zen. Aldaketa honetan TAO eremua Udalerri herri-gune osora zabaltzen zen.

**2.-** Bigarren aldaketari 2019ko martxoaren 28an egindako ohiko Osoko Bilkuran, hasierako onespena eman zitzaion eta Jendaurrean jarri zen 30 egunez, eta hiru alegazio jaso ziren.

Administrazio-epeak direla eta, kontuan hartuta ez zela egokia iruditzen ordenantza uda-garaian behin betiko onartzea, ordenantza behin betiko onartu gabe utzi zen.

**3.-** 2020ko urtearen hasieran berriro heldu zitzaion ordenantzaren aldaketari baino, pandemia egoera medio, ezin izan zen, berriro ere, prozesua burutu.

**4.-** 2020ko udazkenean, udaldiaren ostean, Zumaiako Udalak prozesu parte-hartzaile bat hasi du, TAO sistemari buruz hausnartzeko. Parte hartzeko prozesu horren barruan, egungo sistemaren hainbat alderdiri buruzko inkesta bat jarri da abian, bai eta galdetegi ireki bat ere, herritarrek beren iritzia emateko eta proposamenak islatzeko aukera izan dezaten. Aldi berean, mahai tekniko politikoa aktibatzen da, orain balorazio-mahaia deitua.

Parte-hartze prozesu horren ondorioz idatzi zen TAOren Ordenantzaren bigarren aldaketa hau.

**5.-** Bigarren aldaketari 2019ko martxoaren 28an egindako ohiko Osoko Bilkuran, hasierako onespena eman zitzaion eta Jendaurrean jarri zen 30 egunez, eta hiru alegazio jaso ziren.



**Zumaia Udala**

2022IAKU0001-A22/0507

Administrazio-epeak direla eta, kontuan hartuta ez zela egokia iruditzen ordenantza uda-garaian behin betiko onartzea, ordenantza behin betiko onartu gabe utzi zen. Orain, 2020an, egokitzen jo da zuzenketa batzuk sartzea eta hasierako onespina berriro ematea eta jendaurrean jartzea.

**6.-** Zumaia Udalbatzak 2021eko urtarrilaren 28an egindako ohiko osoko bilkuran hasierako onespina eman dio Zumaia udalerriko Bide publiko jakinetan ibilgailuen aparkamendua eta gune jakin batzuen zirkulazioaren eta erabileraren zenbait alderdi arautzeko ordenantzaren bigarren aldaketari Ordenantza 30 eguneko epean jendaurrean jarri da, eta ez zenez aurkeztu inolako erreklamaziorik zein iradokizunik, aldaketak behin betiko onartutzat eman zen.

**7.-** 2021eko udazkenean, beste behin ere, mahai tekniko politikorako deialdia egin zen ordenantza eta TAOren ezarpena baloratzeko, bai eta herritarrek udalaren webgunean parte hartzeko prozesu bat ere; horren ondorioz, hirugarren aldaketa planteatu da.

**8.-** Ikusirik Udalei trafiko eta zirkulazio gaietan legez ematen zaizkien eskumenena aipatutako ordenantzaren aldaketa egin da.

### IRIZPENA

Ondorioz, 2022ko urtarrilaren 17ko **LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEAN** honako botoekin:

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (EHBildu)  
Marina Bidasoro (EHBildu)  
Alex Oñden Antia (EHBildu)  
Ainhoa Illarramendi (EAJ)  
Airitxu Marañon (PSE)

Aurka: 0

Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

**LEHENA.-** ZUMAIKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZAREN HIRUGARREN ALDAKETA-ri hasierako onespina ematea.

**BIGARRENGOA:** Ordenantzaren hasierako onspenaren iragarkia GAO-n argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

Aldaketa honen berri eman eta gaia eztabaidatu ondoren bozkatzeko da emaitza honakoa izanik:



**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA: LEHENA.-** ZUMAIAKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZAREN HIRUGARREN ALDAKETARI hasierako onespena ematen da.

**BIGARRENGOA:** Ordenantzaren hasierako onespeneren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

**3.1.3.- ZUMAIAKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN (HAPO) BIDEZ UDAL-PLANGINTZAKO INDARREKO ARAU SUBSIDIARIOAK BERRIKUSTEKO OINARRI IZANGO DIREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

**“ 2022KO URTARRILAREN 24KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEAREN IRIZPENA, HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN (HAPO) BIDEZ UDAL-PLANGINTZAKO INDARREKO ARAU SUBSIDIARIOAK BERRIKUSTEKO OINARRI IZANGO DIREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK ONARTZEKO.**

**AURREKARIAK**

**1.-** Ikusirik, egun Zumaia Arau subsidiarioak daude indarrean eta Testu Bateratua GFAko Diputatuen Kontseiluak 2005eko urtarrilaren 25 onartu zuen, dokumentua 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzko legearekin eta Euskal Autonomia Erkidegoan indarren dauden berau garatzeko xedapen eta araudiarekin eta aplikatzekoak direnekin bat jarri behar da.

**2.-** Ikusirik 1023/2019 Alkate Dekretuz ZUMAIAKO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO Pleguak onartu zirela eta lan hauen esleipenduna ESTUDIO DE RENOVACIÓN Y DESARROLLOS URBANOS(ERDU) enpresa izan zela.

**3.-** Ikusirik 2019-11-25-eko lurralde antolamenduaren batzordean ERDU enpresari Zumaia Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren idazketa lanak esleitu zitzaizkionaren berri eman zela.

**4.-** Ikusirik ERDU enpresak Zumaia Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren idazketa lanei lotutako Herritarren parte hartzeko programa aurkeztuz zuela.

**5.-**Ikusirik 2019-02-18-ko lurralde antolamenduaren batzordean ERDU enpresako ordezkariak Zumaia Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren idazketa lanei lotutako Herritarren parte hartzeko programa aurkeztuz zuela eta prozeduraren berri eman zela



**6.-**Ikusirik 2020ko otsailaren 28ko ohiko Osoko Bilkuran indarreko udal plangintzako Arau Subsidiarioen berrikuspena hasia Hiri Antolamendu Plan Orokorren (HAPOren) bitartez eta ESTUDIO DE RENOVACIÓN Y DESARROLLOS URBANOS ERDU enpresak landutako Zumaia Hiri Antolamendurako Plan Orokorren idazketa lanei lotutako Herritarren parte hartzeko programa onartzea erabaki zela

**7.-** Ikusirik, 2/2006 Legearen, ekainaren 30ekoa, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 87. Artikuluak agintzen duela Plan orokorrak egiteko eskumena duten herri-administrazioek aurrerapenak egin beharko dituztela, indarrean dagoen plan bat osorik edo zati batean berrikusi nahi denean.

**8.-** Ikusirik Aurrerakin Dokumentua bi hilabeteko epean jendurrean jarri zela, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, udalerrian gehien saltzen den egunkarian iragarkia argitaratu zela, bai eta Udalaren egoitza elektronikoa ere eta aipatu epean interesdunek iradokizunak eta alternatibak aurkeztu zituztela.

**9.-** Ikusirik Aurrerakin dokumentua udal mugakideetara bidali zela ezagutu dezaten ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintza buruzkoak 90.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

**10.-** Ikusirik Aurrerakin Dokumentua jendurrean jartzearekin batera, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentuaren eskaera aurkeztu zela Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoari, hasierako dokumentu estrategikoarekin eta Planaren aurrerapen-dokumentuarekin batera.

**11.-** Ikusirik 2021-11-29eko lurralde antolamenduaren batzordean Partaidetza txostena eta Aurrerakinaren agerraldi publikoan iradokizunei buruzko informazioa eta erantzunen txosten tekniko-juridikoaren informazioa eman zela.

**12.-** Ikusirik 2022-01-17ko lurralde antolamenduaren batzordean Aurrerakinaren Irizpide eta helburuen dokumentuaren berri eman zela.

### **IRIZPENA**

Ondorioz, 2022ko urtarrilaren 24ko **LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEAN** honako botoekin:

:

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (EHBildu)  
Marina Bidasoro (EHBildu)

Aurka: 0

Abstentzioa: Oier Korta (EAJ)  
Ainhoa Illarramendi (EAJ)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:



**LEHENA.-** Aurrerakina jendaurrean jarri ondoren, Herritarren eta erakundeen parte-hartzearen emaitza ikusita, Zumaia HAPO dokumentuaren Aurrerakineko IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK ONARTZEA, hauek oinarri izango dira indarrean dauden udal-plangintzako Arau Subsidiarioen berrikuspena idazteko, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) bidez.

**BIGARRENGOA.-** Jendaurrean jartzea ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua, udal honen egoitza elektronikoaren bidez: <https://www.zumaia.eus>

**HIRUGARRENA.-** Plan Orokorraren hasierako onespeneren dokumentua egiteko eta Ingurumen Azterlan Estrategikoa idazteko arduraren ematea, irismen-dokumentua kontuan hartuta, ESTUDIO DE RENOVACIÓN y DESARROLLOS URBANOS (ERDU) erredaktore-taldeari, betiere atxikitako dokumentuan ezartzen diren oinarriko irizpide eta helburuak jarraituz.

**LAUGARRENA.-** Plana idatzi eta egin ondoren, eman bedi Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari hasierako onarpena emateko prozedura, dagozkion txosten sektorialak eskatu ondoren.

Batzordean aipatu ondoren, plenora ekartzen da HAPO dokumentuaren aurrerakineko irizpideak eta helburuak osoko bilkurak onar dezan, beraz bozketa egin eta emaitza honako hau da,

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA: LEHENA.-** Aurrerakina jendaurrean jarri ondoren, Herritarren eta erakundeen parte-hartzearen emaitza ikusita, Zumaia HAPO dokumentuaren Aurrerakineko IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK ONARTZEN DA, hauek oinarri izango dira indarrean dauden udal-plangintzako Arau Subsidiarioen berrikuspena idazteko, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) bidez.

**BIGARRENGOA.-** Jendaurrean jartzea ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua, udal honen egoitza elektronikoaren bidez: <https://www.zumaia.eus>

**HIRUGARRENA.-** Plan Orokorraren hasierako onespeneren dokumentua egiteko eta Ingurumen Azterlan Estrategikoa idazteko arduraren ematea, irismen-dokumentua kontuan hartuta, ESTUDIO DE RENOVACIÓN y DESARROLLOS URBANOS (ERDU) erredaktore-taldeari, betiere atxikitako dokumentuan ezartzen diren oinarriko irizpide eta helburuak jarraituz.



**Zumaia Udala**

2022IAKU0001-A22/0507

**LAUGARRENA.-** Plana idatzi eta egin ondoren, eman bedi Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari hasierako onarpena emateko prozedura, dagozkion txosten sektorialak eskatu ondoren.

#### **4.- EUSKARA ETA HEZKUNTZA.-**

##### **4.1.- PROPOSAMENA;**

##### **4.1.1.- ZUMAIAN HAURRESKOLA BERRIA EGIN ETA UNITATE BATZUK HERRI ESKOLAN INTEGRATZEARI BURUZKOA**

#### **2022KO URTARRILAREN 24KO EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN POPOSAMENA, ZUMAIAN HAURRESKOLA BERRIA EGITEARI BURUZKOA.**

##### **AURREKARIAK**

1.- 2022ko urtarrilaren 24ko Euskara eta Hezkuntza batzordean Zumaian Haurreskola berria sortu eta parte bat Herri Eskolan integratzeko proposamena egin zen.

2.- Gaur egun Zumaian bi haurreskola publiko ditugu; Arrangoleta Haurreskola eta Eskola Txikia Haurreskola. Arrangoletakoa modularra da eta hamar urte baino gehiago dituenek apur bat zaharkituta dagoen eraikina da, momentu honetan haren mantentze lanek ahalegin handia eskatzen dute, ekonomikoa eta bestelakoa. Bestalde haurreskola hori Herri Eskolatik urrun kokatuta dago, eta hori kasu askotan eragozpena da beste haur bat Herri Eskolan duten gurasoentzat batez ere. Beste haurreskola, Eskola Txikia, oso mugatua da espazio aldetik eta bera bakarrik ez litzateke nahikoa izango gaur egun Zumaia dituen beharrei erantzuteko. Eta azkenik, Zumaia beste haurreskola bat dauka, kasu honetan herriko ikastetxe kontzertatuaren barruan.

3.- Beste alde batetik, momentu honetan Herri Eskolako eraikinean hainbat hobekuntza egin behar dira eta beheko solairua moldatu beharra dago; sukaldea eta jangela berria kokatzeko eta zuzendaritzaren espazioa berrantolatzeke, besteak beste. Eta horrek aukera paregabea eskaintzen dio Udalarari eskola publikoan 0-18 eskaintza bateratzeko, birmoldaketa horren barruan haurreskola ere txertatuta.

4.- Beraz, hori guztia ikusita, erabaki da Zumaian haurreskola publiko bakarra egotea aurrerantzean ..... izena edukiko duena. Eta haurreskola publiko horretako hiru gela edo unitatea Herri Eskolako eraikinaren barruan integratzea Hezkuntza sailari behar den baimena eskatuta. Era berean, erabaki da gaur egun Eskola Txikia deituta dauden bi gelak ere irekita mantentzea herrian egon litekeen balizko eskaerari erantzun ahal izateko. Hau da, Zumaian haurreskola publiko bakarra egongo litzateke bi eraikinetan banatuta, eta orain arte bezalaxe 5 unitate edukiko litzuzke haurreskola berriak.

##### **PROPOSAMENA**

Ondorioz, 2022ko urtarrilaren 24ko Euskara eta Hezkuntza Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 2 EHBILDU, 2 EAJ

Aurka:

Abstentzioa:





**Zumaia Udala**

2022IAKU0001-A22/0507

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo soila beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Herrian haurreskola publiko bakarra eratzeko prozesua administratiboari hasiera ematea

2.- Haurreskola berri horretako hiru unitate Herri Eskolako eraikinean integratzea Hezkuntza Sailari behar den lagapena eskatuta, eta beste bi unitate mantentzea gaur egun Eskola Txikia esaten zaion kokalekuan.

3.- Erabaki honen berri Haurreskolen Partzuergoari ematea, administrazio tramiteei hasiera ofiziala emateko."

Proposamen bezala ekarri delako, gaia plenoan tratatzeko bozkatu egiten da

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA:** Gaia tratatzea erabakitzen da

Ondoren eta haurreskola publiko bakarra eratzeko prozesua aurrera ematea bozkatu egiten da

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA:** 1.- Herrian haurreskola publiko bakarra eratzeko prozesua administratiboari hasiera ematen da

2.- Haurreskola berri horretako hiru unitate Herri Eskolako eraikinean integratzea Hezkuntza Sailari behar den lagapena eskatuta, eta beste bi unitate mantentzea gaur egun Eskola Txikia esaten zaion kokalekuan.

3.- Erabaki honen berri Haurreskolen Partzuergoari ematea, administrazio tramiteei hasiera ofiziala emateko."

## **5.- PERTSONALA.-**



**5.1.1 ZUMAIAKO UDALEKO ETA ZUMAIAKO KIROL PATRONATUKO LANGILEEN ORDAINSARIEI, 2022KO URTARRILAREN 1EKO ERAGIN DATATIK %2KO IGOERA ONARTZEA, BIDEZKO BADA,**

**“ 2022KO URTARRILAREN 24KO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA, 2022RAKO ZUMAIAKO UDALEKO ETA ZUMAIAKO KIROL PATRONATUKO LANGILEEN ORDAINSARIEN %2 IGOERAREN ONARPENAREN INGURUAN, 22/2021 LEGEAK, abenduaren 28koak, ESTATUAREN 2022rako AURREKONTU OROKORREI BURUZKOAK ARAUTZEN DUENAREKIN BAT.**

### **AURREKARIAK**

**1.-** 2021eko abenduaren 29an, 22/2021 Legea, abenduaren 28koa Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzkoa argitaratu da Estatuako Aldizkari Ofizialean (BOE).

**2.-** Aipatutako legeak, 19.2 artikuluan ondorengo arautzen du:

**Bi. 2022. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariek ezin izango dute ehuneko 2ko igoera baino handiagoa izan 2021ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, alderaketaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langile-kopuruari bai antzinasunari dagokienez.**

**3.-** 2022rako udal aurrekontuetan aurreikusi da ordainsarien %2ko igoera estaltzeko kreditua.

### **IRIZPENA**

Ondorioz, 2022ko urtarrilaren 24ko Pertsonal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Aldeko bozka

Iñaki Ostolaza (EH-Bildu)  
Arantza Gajate (EH-Bildu)  
Asier Arakistain (EH-Bildu)  
Ainhoa Illarramendi (EAJ)  
Iker Mardaras (EAJ)

**Aldeko** irizpena eman du eta honako Proposamen hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

1.- 2021eko abenduaren 28ko 22/2021 Legeak, 2022rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzkoak arautzen duena kontuan izanik, Zumaia Udaleko eta Zumaia Kirol Patronatuko langileen ordainsariei, 2022ko urtarrilaren 1eko eragin datatik %2ko igoera aplikatzea.



Hau funtzionario guztientzat dagoen soldata igoera jarrita dago eta indarrean mantentzeko bozketa egiten da

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA:** 1.- 2021eko abenduaren 28ko 22/2021 Legeak, 2022rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzkoak arautzen duena kontuan izanik, Zumaia Udaleko eta Zumaia Kirol Patronatuko langileen ordainsariei, 2022ko urtarrilaren 1eko eragin datatik %2ko igoera aplikatzen da.

#### 6.- ESKARI – GALDERAK

IÑAKI OSTOLAZA:

Nik bukatu aurretik, bai nahiko nukeela aipatu, udal osoko bilkura hau izango dela Gorka Urgoitik zuzentzen duen azkenengoa, idazkari moduan, hamabi urte ondoren, beste toki batera doa eta besterik gabe hamabi urte hauetatik eskerrak eman Gorka, egin duzun lanagatik eta zortea izan dezazula toki berrian, eskerrik asko,

-----

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hogeita zazpi minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria



**Zumaiako Udala**

2022IAKU0001-A22/0507